

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 253/2020 Erabakia, ekainaren 16koa. Onespena ematea huts material bat zuzentzeari ekainaren 2ko 227/2020 Erabakian, zeinak indarrik gabe utzi baitzuen, gerora agertutako kausengatik, enplegurako prestakuntzarako laguntzen 2020rako deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 2ko 227/2020 Erabakiaren bidez, onetsi zen indarrik gabe uztea, gerora agertutako arrazoiengatik, enplegurako prestakuntza emateko laguntzen 2020ko ekitaldiko deialdia.

Ebazpen hori onetsi ondoren, huts bat atzeman da erabaki horren bigarren apartatuan, eta zuzendu behar da.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Bakarra. Zuzentzea Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 2ko 227/2020 Erabakiaren bigarren apartatuan atzemandako hutsa (erabaki horren bidez, eraginik gabe utzi zen, gerora agertutako kausengatik, enplegurako prestakuntzako laguntzen 2020ko deialdia). Honela geratuko da idatzita:

“Bigarrena. Bertan behera uztea gastu baimen hauek:

– 533.000,00 euro, 30.5.02.3500.481.00.01 aurrekontu partidakoak (xedapen erreferentzia: 20.1.20 105.130/000).

– 30.000,00 euro, 30.5.02.3500.481.00.01 aurrekontu partidakoak (xedapen erreferentzia: 20.1.20 105.131/000).

– 150.000,00 euro, 30.5.02.3500.465.00.01 aurrekontu partidakoak (xedapen erreferentzia: 20.1.20 105.59/000).”

Azken xedapena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 16a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria

JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES